ABESTI GUZTIAK A.MURO KONPOSATUAK,*(A.MURO-P.LIZARRALDE) ETA +(THE SMITHEREENS) EZIK.
ESKERRAK:BATIZ:KITARRAK("KONDENAREN MENPE"-"GABE JAUNA")
ELORTZA:AHOTSA("ARIMA SOBERA").
JAVI"AUPALEGI":AHOTSAK ("BIDAIARIARENAK")
JOSU MONGE:PERKUSIOAK ("BIDE BAZTERREAN"-"GUK BESTERIK")
FERNANDO LEIZA,M.TOMAS,M.ERVITI,AITOR "MAZMORRA",JULE, MIREN,ETA ERASOKO BIZTANLE GUZTIEI,PATXI ETA ANGEL (KONTUZ HI!),LUISMA,MARIELEN.
LORENTZO RECORDS ESTUDIOETAN GRABATUA AITOR ARIÑO ETA JOSU MONGE
ESKUTIK,94KO URRIAN.
AZALA:MAURO ENTRIALGO.
ARGAZKIAK:ADOLFO LACUNZA.
"ANIMA SOBERA" FERMIN BELLOSORI ESKEITZEN DIOGU.

BALERDI BALERDI:
ZARA:BATERIA,PERKUSIOA,AHOTSAK.
BLANCA:TEKLATUAK,AKORDEOIA,AHOTSAK.
TOÑO:AHOTSA,KITARRAK,MANDOLINA.
MARINO:BAXUA,AHOTSAK
PATXI:KITARRA,ARMONIKA,AHOTSAK ETA KONTRATAZIOA.

Kontratazioa: Patxi Tel. (948) 15 18 15
Fax. (948) 15 15 14

## 1 - EZ GARA GALDU

Kaixo,ezezagun lagun hori;
ez eskuminik,ez agur berorik;
ez dugu inoiz izan elkarren berririk,
halaere adiskidetzat hartu zaitu nik.
Atrebentzia ez bada
horra hor nere karta,
harretaz entzungo duzulakoan.

Urtetan antzekoak gara,
berdintsua dugu etorkizuna.
Suge baten antzera
bihurritu zaigu bizitza,
denboratren pozoia zainetan.

Ez zaitez ikara,ez lotsatu,
zu eta biok ez gara galdu.

Esan ditugun hitz goxoak
irensteko garaian saminak;
egindako akats nabarmenenak
errepikatu ditugu askotan.
Hormaren aurka jo
izan dugu aldiro
gogoa izan dugu gero ta apalago.

Ez zaitez ikara...

Agur,ezezagun lagun hori,
eta aurrerantzean ongi ibili.

## 2 - ARIMA SOBERA

Smokey ilunpean zigarro bat erretzen
Oh,zer duk,Robinson?
Astunegia ote izenaren zama
hi bezalako bakarti batentzat?
Esaidak,zer dela eta
mistelazko malko horiek?
"Sam hil dute bart
ohantze epel batean."

Gorputz akala eta arima gehiegi,
arima sobera...Bekatu al da hori?

Urrezko dizdira bat Smokeyren hatzean
Orain zer,Robinson?
"Arethari deitu beharko nioke...
Kabi eta xori asko kabitzen bait da
bere ile kardatuan.
Han izanen du atseden
bart hil duten
hortz zuriko lagunak."

Gorputz akala...

Hatzen klaskada bat eta Smokey zutik jartzen da.
Nora hoa orain,Robinson?
"Zerura doanari lagundu behar diogu,
merezia bait du bidaia eder bat;
Bookerrek pianoa eta
beste guztiok korua.
Bejondeizula,Sam;
gu ere laster gara han."

Gorputz akala...

### 3 - KONDENAREN MENPE

Egun bat gehiago kondenaren menpe;
nahitanahiez goiz jeiki behar da
lanean aritzeko prest.

Lantegian kate bat dago;
espetxean bezala egoteko
bola bakarrik falta da.

Bulegoan, lana finagoa;
halaere irri egin behar
jabeen esanetara.

Egun bat gehiago kondenaren menpe;
soldata truk gabiltza esklabu:
zenbat lan hainbat neke.

### 4 - NON DUZU ZAURIA?

"Mutiko bat da" zioten,
segur eta harro bazi ginen,
eta ongi erakutsi ziguten
gordezinak godetzen,
barnea iraultzen...

Zuk non duzu zauria,
malko arrasto lehorra,
urratu ttipi hura?

Bagenekien gizon ginela,
arraildurek zeramatela
oinazearen muinera,
bakarrizketa izanen zela
ihesa.

Zuk...

Bekoz-beko jarrita gaudenean
konfidentzia egin hurran,
hotzikara etortzen da.

Zuk...

### 5 - BIDAIARIARENAK

Bidai bat prestatu dut nire lagunekin,
horiek gabe ez nenkike zer behar den egin,
egongo nintzateke nahi bai eta ezin,
horregatik hobeto denok elkarrekin.

Orain esango ditut lagunen izenak,
Nike da lehena eta Levi's du hurrenak,
Lacoste bestea ta hara laugarrena
Mitsubishi du horrek bere abizena.

Aurrekoak onak dira hori ezin ukatu,
bainan izenak oraindik ez dira akitu,
Nikon, Kodak ta Sony ezin dira atzendu,
beti oroitzapen ona bait dute hedatu.

Denak ditut gogoko eta lagungarri,
ordea denen artean bi azpimarragarri,
Visa maiz izaten da bidaien euskarri,
eta American Express gauza bera sarri.

Oso ongi moldatzen naiz bidai horietan,
kanpokoekin ere berdin gehienetan,
lagun asko egiten dut herri guztietan
eta etxera ekartzen ditut batzuetan.

Koadrilla polita da benetan gurea,
denok osatzen dugu multzo dotorea,
mundua korritzeko behar da adorea,
koldarrak ez du aurkitzen sekulan urrea.

### 6 - PASA DUN

Hiriko beste aldean
bizi haizen ezkero
elkarrengandik oso urrun gabiltzan
azken aldi hontan.
Bazekinat hi non aurkitu,
telefonoa ez dinat galdu,
bainan izan genuen aukera
pasa dun.

Harrokeriaz beterik
elkar mindu geninan
eta desioak utzitako pena
noiz bukatuko ez zekinat.
Inoiz ez gaitun elkartzen
kasualitatez ez bada,
bion arteko harremanak
huts bihurtuta.

### 7. BEHIN ETA BERRIZ

Denetan saiatu naiz edonora joanda ere,
zu gabe ezin bizi.
Bidai luze hau ez dut kontrolatu,
nola nezakeen lortu?
Elkarrekin ginela aspergarria zen mundua;
nere bidea luzerako doa eta orain ez dakit zer egin.
Behin eta berriz... Ez dut ikasiko.

Dena egin dut zurekin egoteko
zer esan jakin gabe.
Ez nauzu hahi alboan ikusi,
esaidazu zer asmo duzun.

Eskuetatik helduta mundua ez zitzaigun hobea;
nere bidea txarrera doa eta orain ez dakit zer egin.
Behin eta berriz... Ikasi egingo dut.

Gainerako neskeei zure antza bilatuko diet:
orain jakin badakit ez dudala inor berririk nahi.
Behin eta berriz... Ikasi egingo ote dut?

### 8 - MARY, MARY

Zango bat jan zidaten Hawaiiko kanibalek,
beso bat irentsi zidan Shangaiko arrain batek,
arpoiaren sokak eraman zidan bestea,
pirata alu batek atera dit begi bat.

Mary, Mary,
oraingoan benetan itzuliko naiz,
puskaren bat falta zait
bainan bihotza osorik daukat.
Zure marineltxoa izango naiz,
nere emaztetxoa izango zara,
eta bihotzean edukiko nauzu
kajatxo baten barnean.

Brasilgo piranha batek potro bat ohostu zidan
eta beste utzi dut Japongo itxasoan;
hortzak galduak ditut eta ilerik bat ere ez,
belarriak marraskatu dizkit kukuxuak.

Mary, Mary...

### 9 - GABE JAUNA

Gabe Jauna astiro mugitzen da,
ez du bisaia mudatzen;
eskua sakeletan,
beti irrifarrez,
polliki zaigu hurreratzen.

Kasu eman heldu den harekin,
Gabe Jauna deritzo
eta ez dakar ezer.

Inguratu eta ez du deus esaten.
Zerbait galdetuz gero
ez du erantzuten,
dagoenari behatu eta
bertan da geratzen.

Kasu...

Harretaz entzuten du guk dioguna,
beti zerbait ikasten
ari bailitzan;
entzun duenarekin
konforme dirudi.

Kasu...

### 10 - AIZU, MUTIL

Aizu, mutil, etorri hona, mesedez,
egarri naiz eta nahi dut ase.
Apaleko botilak niri begira daude,
"har gaitzazu eta edan eta edan eta edan"
esaten didate.
Bainan ez pentsatu gaizki
(usteak beti ustel)
ez naiz alkoholtzale:
nahi dudana da pixkat alaitzea,
lagun artean ongi pasatzea.

Aizu, mutil, entzun ongi:
ba al dakizu prestatzen koktel berezirik?
Baso luzean jarri ron eta pipermint
eta gero bota ginebra eta vodka eta whisky
eta emaidazu niri.
Bainan...

Aizu, lagun, lagun nazazu,
oka egin behar dut.
Tabernako argiek min egiten didate
eta entzuten den monanga
ez dut soportatzen.
Bainan...

### 11 - BIDE BAZTERREAN

Harresi gainean eserita nengoelarik
begi bistan nuen urruneko mendi gaina,
iruditu zitzaidan zerua bertan zela,
harresi gainean.

Bide zabalean aurrera nenbilela
zapal nezakeen paradisu ezezaguna,
atseden hartu gabe, haizea nere alde,
bide zabalean.

Bide bazterrean gelditu naiz bakarrikan,
nor agertuko zain nago etsituta,
ez dut aurrera jo nahi ez badut norbait lagun,
bide bazterrean.

### 12 - IBAIAZ BESTE ALDEKO AUZOAN

Ibaiaz beste aldeko auzoan
bizi izan garen lagunok, guztiok,
txikitatik ikasi dugu
hiriaren bihotza non den: ez bertan.
Zubia pasata
harresi arteko bidetik
ongi jantzita
igo gara behin eta berriz,
K. jauna gazteluratzen zen antzera.

Hiriaren goikaldean
pasiatzen ginen guztietan, benetan,
itxura zainduta ere
auzo usaia nabaria zen guregan.
Klase kontzientzia,
gorrotoa ta inbidia
sortu ohi ziren
nahasirik gure baitan
eta bertan diraute oraindik ere.

### 13 - GU BESTERIK

Hara eta hona, galduen antzaz,
hara eta hona hasi gara dantzan,
inguruari so eta ezin igarriz
pasako dugu hestu eta larri,
ez dakigulako ez dagoela inor
gu besterik,
kezkaren gainetik ibil daitekenik,
mundu latz honetan bizi daitekenik
eta bizi den inor gu besterik.

Nahi digute ziria sartu,
bakarrik gaudela uste dezagun;
beharbada ahuldu egin gaituzte,
halaere kontuz ibili behar dute,
ez dakitelako ez dagoela inor
gu besterik...

Jo gaituzte gogaitu arte
basati eta gogor ginela esanez;
indarraren bidez ez dute ezer lortu
ezta lortuko ere ez, pakerik ez badugu
badakigulako ez dagoela inor
gu besterik...

### 14 -APALATEGIAN

Aukera guztiak galdu ditugu,
orain hemen gaudela, besterik ez dakigu;
gure balio zehatza ez galdetu.

Sortu ginen eguna ezabatu zaigu,
aspalditik gure aurrean ez da inor gelditu:
merkatu legea dela eta
gero eta zokoagoan apalategian.

Hasiera batean berri-berriak ginen,
eskaparatean ere jarri gintuzten;
merkealdiak pasata
sasoitik kanpo gaude apalategian.

Hau bizitza tristea hipermekatuan!:
kaduzidade data hurbil dugu eta;
ustel usaina darigu,
iraungo al dugu apalategian?